



DBEO

Datuen babesa hezkuntza- eremuan



Erregelamendura
egokitzeko gidaliburu
azkarra

Euskadi, bien común


EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



1

Aurkezpena

Hezkuntza-arloko zereginetan, etengabe ari gara datu pertsonalak trukatzen. Ikasturtero, bereziki babestutako datu ugari sortzen eta tratatzen dira, ikasleei, haien familiei eta, oro har, hezkuntza-komunitate osoari buruzkoak. Osasunari buruzko datuak, ikasleen guraso edo tutoreen egoera zibilari buruzkoak, sinesmen erlijiosoei buruzkoak eta ebaluazio pertsonalei nahiz espediente akademikoari buruzkoak tratatzen ditugu. Datu horietako batzuk datu-kategoria berezietan sartzen dira, batez ere adingabeei buruzko datuak direlako. Datuen tratamendu horiek guztiak bi arau hauetan ezarritako jarraibideen eta irizpideen arabera kudeatu behar dira: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan — Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen baitu—, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoan (DBEDBLO).



AURKIBIDEA

DBEO Datuen babesaren hezkuntza-eremuan	1
1 Aurkezpena	3
2 Oinarrizko terminologia	6
2.1 Zer da datu pertsonala?	7
2.2 Zer da datu pertsonalen tratamendua?	7
2.3 Zer dira datu pertsonalen kategoria bereziak?	7
2.4 Nor da «datuen tratamenduaren arduraduna»?	8
2.5 Nor da «datuen tratamendu-eragilea»?	8
2.6 Nor da «datuen babeserako ordezkaria»?	9
2.7 Zer da datuak komunikatzea?	10
2.8 Nor da ikastetxeak kudeatzen dituen datu pertsonalen jabe?	10
3 Nahitaez egin beharreko lau gauza	12
3.1 Familien adostasun espresua lortu tratamenduak hezkuntza-helbururik ez baldin badu.	13
3.2 Datuak tratatzeko jarduerak erregistratu eta dokumentatu	13
3.3 Arriskuaren balorazioa egin	14
3.4 Segurtasun-urraketak eta gorabeherak salatu.	14
4 Ikastetxeek datuak tratatzea	16
4.1 Datu-bilketa	17
4.2 Datuen tratamendua	18
4.3 Argitaratu al dezake ikastetxeak datu pertsonalik zerrenden bidez?	21
4.4 Ikastetxeak daturik komunikatu al dezake adostasunik gabe?	21
4.5 Irakasleek beren ikasleen datu pertsonal guztietarako irispidea izan al ditzakete?	23
4.6 Zer gertatzen da ikasleen datu pertsonalekin ikastetxez aldatuz gero?	23
4.7 Datuen babesaren arloko eskubideak baliatzea.	23
5 Guraso-elkarteek datuak tratatzea	24
5.1 Ikastetxeek ikasleen informazio pertsonala eman al diezaiekete guraso-elkarteei?	25
6 Irudiak hartzea eta argitaratzea	26
6.1 Irakasleak ezin ditu irudiak edo grabazioak bere helburuetarako erabili.	27

AURKIBIDEA

6.2	Ez da erabili behar adingabea ezagutzeko moduko irudirik.	27
6.3	Irakasleek irudiak hartzea. Maiz egiten diren galderak.	28
6.4	Ikasleek ikasgelan irudiak hartzea. Maiz egiten diren galderak.	29
6.5	Ziberjazarpenaren susmoa izanez gero, irakasleak smartphonearen edukirako irispidea izan al dezake baimenik gabe?	29
7	Datuen tratamendua IKT inguruneetan	30
7.1	Ikastetxeak ezarrita duen protokoloaren arabera jardun beharko da.	31
7.2	Gurasoekiko eta ikasleekiko komunikazioa.	31
7.3	Ikastetxeak sare sozialak erabiltzeak datu pertsonalak tratatzea al dakar?	32
7.4	Beharrezkoa al da ikasle bakoitzaren edo gurasoen adostasuna datuak sare sozial batean argitaratzeko?	32
8	Bideozaintza.....	34
8.1	Badago ikastetxeko instalazio guztietan bideozaintzako kamerak instalatzerik?.....	35
9	Datuen babesaren arloko hezkuntza-curriculuma: oinarrizko terminologia	36
9.1	Hezkuntza-curriculuma.....	37
9.2	Hezkuntza-administrazioaren betebeharrak:.....	37

2

Oinarrizko terminologia



2.1 Zer da datu pertsonala?

Datu pertsonala da pertsona fisiko bat identifikatzen duen edo identifikatzeko aukera ematen duen edozein informazio.

Hezkuntza-eremuan, ohikoa da ikasleen zenbait datu kudeatzea, hala nola ikaslearen izen-abizenak, aitaren, amaren edo tutorearen lanbidea, helbidea, telefono-zenbakia, banku-kontuaren zenbakia edo helbide elektronikoa. Bestalde, ikasleen irudiak, bideoak edo ahots-grabazioak ere datu pertsonalak dira.

Adibideak:

- **Honako hauek datu pertsonalak dira:**
 - Ikaslearen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, jaioteguna...
 - Familiaren datuak: familia-egoera, bankuko datuak.
 - Ikasle ohien datuak: ikaslearen historia.
 - Langileen datuak: langileen erregistro-zenbakia, nominako datu ekonomikoak, familiari buruzko datuak.
 - Hornitzaileen datuak: izena, bankuko datuak.
 - Hautagaien datuak: titulazioak, lan-esperientzia.
 - Ate irekiko jardunaldietan parte hartzen duten pertsonen datuak.
 - Bideozaintzako kamerek grabatutako irudiak.
 - «ABC ikastetxeko DBH4ko A taldeko ordezkaria»ren gisako esapideak, pertsona jakin bat identifikatzen dute-eta.
- **Honako hauek ez dira datu pertsonalak:**
 - Enpresa hornitzaile baten IFZ.
 - «Ikastetxeko ordezkari bat»en gisako esapideak.

2.2 Zer da datu pertsonalen tratamendua?

Datu pertsonal baten edo datu pertsonalen multzo baten gainean egiten den edozein eragiketa.

Adibideak:

- Ikasleen datu pertsonalak biltzea, ikastetxearen datu-basean gordetzea edo ezabatzea.

2.3 Zer dira datu pertsonalen kategoria bereziak?

Etnia- edo arraza-jatorriaren, iritzi politikoaren, sinesmen erlijioso edo filosofikoaren edo sindikatu-afiliazioaren berri ematen duten datu pertsonalak, pertsona bat era

unibokoan identifikatzen duten datu genetiko edo biometrikoak, osasunari, sexu-bizitzari edo sexu-orientazioari buruzko datuak eta arau-hauste penal edo administratiboen berri ematen dutenak.

Adibide hauetan, bereziki babestutako datuak ezagutarazten dira:

- Erljio jakin bateko kideen zerrenda argitaratzea.
- Alergiaren bat duten ikasleen zerrenda jartzea jantokira sartzeko atean.
- Intranetean argitaratzea ikastalde bateko zein ikaslek dituzten hezkuntza-premia bereziak.

Erljioa ikastea aukeratu izana ez da kategoria bereziko datutzat hartzen.

2.4 Nor da «datuen tratamenduaren arduraduna»?

- Bildutako datu pertsonalen tratamenduaren helburua zein den eta horretarako zer bitarteko erabiliko diren erabakitzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa da.
- Ikastetxe pribatuetan edo itunduetan, ikastetxearen titularra den enpresa, antolakundea edo entitatea da tratamenduaren arduraduna.
- Ikastetxe publikoen kasuan, beriz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (Ikastetxeen Zuzendaritza).

2.5 Nor da «datuen tratamendu-eragilea»?

Tratamenduaren arduradunaren kontura datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa da. Hori horrela izaten da tratamenduaren arduradunaren esku dauden datu pertsonalak erabiltzea dakarren zerbitzu bat eman behar duelako.

Tratamenduaren arduradunaren eta tratamendu-eragilearen arteko harremana idatziz arautu behar da, kontratu, hitzarmen edo akordio baten bidez, edo biak lotzen dituen egintza juridiko baten bitartez.

Tratamendu-eragileen adibideak:

- Ikastetxeak eskola-jantokirako kontratatatu duen catering-enpresa bat (baliteke osasun-arloko datuak tratatzea, esate baterako alergieiei edo intolerantziei buruzkoak).
- Eskola-garraioko zerbitzua ematen duen enpresa bat (baliteke datu pertsonal batzuk tratatzea, hala nola ikasleen helbideak).
- Ebaluazio psikologikoko zerbitzuak ematen dituen enpresa bat (baliteke datu pertsonalak tratatzea, adibidez familien egoerari buruzkoak).
- Ikastetxeak kontratatutako eskolaz kanpoko jardueren enpresa bat (baliteke datu pertsonalak tratatzea, besteak beste izen-abizenak eta adina).

Tratamendu-enkargurako kontratua sinatu behar al da eskola-jantokiko zerbitzua kudeatzeko kontratatu den eta tratamendu-eragilea den enpresarekin?

- Bai, baldin eta enpresak ikasleen datu pertsonalak eskuratu behar baditu, besteak beste, elikaduragatiko alergiaren bat duten ikasleak identifikatzeko.

Eta tratamendu-enkargurako kontratua sinatu behar al da eskola-ordutegitik kanpo egindako jardueretan ikasleak artatzen dituzten begiraleekin?

- Begiraleak ikastetxearekin lan-harremana badu, ikastetxeko kide izango da, eta, beraz, ez da tratamendu-eragilea izango. Kasu horretan, ez da tratamendu-enkargurako kontraturik sinatu behar izango.
- Begiralea ikastetxeaz bestelako enpresa bateko langilea bada, tratamendu-enkargurako kontratua sinatu beharko da zerbitzuak kontratatu diren enpresarekin.

Ikastetxe bati zerbitzu ematen dioten enpresetatik, zein ez dira tratamendu-eragile?

Garbiketa-enpresa batek, adibidez, ez du tratamendu-enkargurako kontraturik sinatu behar, ez duelako datu pertsonaletarako irispiderik. Gauza bera aplika dakieke, oro har, mantentze-kontratuei (elektrizitatea, iturgintza, igeltserotza...).

Horrelakoetan, gomendatzen da kontratuetan espresuki aurreikustea debekatuta dagoela datu pertsonalak eskuratzeko, eta halabeharrez ezagutu daitezkeen datuen sekretua gorde behar dela.

2.6 Nor da «datuen babeserako ordezkaria»?

Datuen babesari buruzko araudia betetzen den ikuskatzea, eta horri buruzko informazioa ematea eta aholku ematea eginkizun dituen pertsona da. Horrez gain, aurkez litezkeen erreklamazioak ebazten ditu, eta kontrol-agintaritzekiko (Datuak Babesteko Euskal Bulegoa edo Datuak Babesteko Espainiako Agentzia) eta interesdunekiko solaskidea da.

- Ikastetxe publikoen kasuan, EAEko Administrazio Publikoaren datuen babeserako ordezkaria da.
- Ikastetxe pribatuen edo itunduen kasuan, litekeena da haien elkarteen edo kolektiboen bidez bideratzea (Kristau Eskola, HETEL, Partaide...).



2.7 Zer da datuak komunikatzea?

Ikastetxeek beren ikasleen datuak jakinarazi ahal izango dizkiete erakunde, entitate edo enpresei. Horretarako, baloratu beharko dute gurasoen edo tutoreen adostasun espresua behar den, edo, 14 urtetik gorakoa bada, ikaslearen beraren adostasun espresua.

- Adostasun espresua izanik, ikasleen datu pertsonalak laga dakizkieke guraso-elkarteei, kirol-klubei edo aisiako eta denbora libreko taldeei, baldin eta, ikastetxeari lotuta egon arren, nortasun juridiko bereizia badute. Baita eskolaz kanpoko jardueren enpresei ere.
- Ikasle bat ikastetxez aldatzen bada, jatorrizko ikastetxeak ikaslearen datu pertsonalak jakinarazi ahal izango dizkio beste ikastetxeari matrikula egiteko, adostasun espresurik behar izan gabe, baldin eta ikasleak edo guraso edo tutoreek eskatzen badute.
- Halaber, datuak komunika dakizkieke administrazio publikoei, gizarte-zerbitzuei, poliziarri eta osasun-zentroeiei, adostasun espresurik behar izan gabe, horretarako legitimazio-oinarriren bat baldin badago.


2.8 Nor da ikastetxeak kudeatzen dituen datu pertsonalen jabe?

Horien titularra bakarrik.

Informazio gehiago, hemen:

www.euskadi.eus/proteccion-datos

<http://www.avpd.euskadi.eus/informacion/faqs-preguntas-mas-frecuentes/s04-5273/es/>



3

Nahitaez egin
beharreko lau gauza



3.1 Familien adostasun espresua lortu tratamenduak hezkuntza-helbururik ez baldin bada.

Ikasleen datu pertsonal jakin batzuk bildu eta tratatu ahal izateko, ikastetxeak bereizi egin behar ditu hezkuntza-helburua duten jarduerak eta bestelako helburuak dituztenak.

Tratamenduaren helburua hezkuntzakoa ez beste bat baldin bada, ikasleen adostasun espresua beharko da, 14 urtetik gorakoak badira, edo haien guraso edo tutoreena, adin horretatik beherakoak badira.

Aitzitik, bildutako datu pertsonalak ikastetxearen hezkuntza-helbururako edo interes legitimo batekin tratatzen badira, ez da adostasun hori lortu behar izango. Matrikulazioari buruzko oinarizko datuen kasua da hori, adibidez.

Adostasun bereziak: ikastetxeak adostasun berezia eska dezake hezkuntza-jardueretan irudiak grabatzeko eta berezko kanalen bidez zabaltzeko (web-orri korporatiboa, ikastetxearen bloga, aldizkaria edo urtekaria...).

Bereziki babestutako datuak biltzeko (ikusi oinarizko terminologia), berariazko adostasuna beharko da.

3.2 Datuak tratatzeko jarduerak erregistratu eta dokumentatu.

Horrek esan nahi du ikastetxeak zenbait dokumentutan jaso beharko duela zein den bere jarduera-protokoloa ikasleengandik jasotzen dituen datuei dagokienez. Informazio hori Tratamendu Jardueren Erregistroan jasoko da.

Erregistro horrek ezartzen du zer motatako datuak biltzen diren eta zergatik eskatzen diren, eta, horrez gain, adostasun inprimakiak biltzen ditu, eta zehazten du datuekin zer egin behar den, zein entitateri enkargatu behar zaion datu horien tratamendua (ikusi oinarizko terminologia), nola eta non argitaratu behar diren, nola bermatu behar den haien zaintza eta konfidentzialtasuna, nola eta nork salatu behar dituen urraketak eta gorabeherak...

Tratamendu Jardueren Erregistroak modu fede-emailean adierazi behar du Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra betetzen dela eta hezkuntza-komunitateko kideen eskubideak bermatzen direla (ikusi hurrengo kapitulua).

Ikastetxe publikoetako Tratamendu Jardueren Erregistroa hemen kontsulta daiteke: <https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-aprat/es/>

3.3 Arriskuaren balorazioa egin.

Datu pertsonalen tratamenduak zenbait arrisku dakartza:

- Datuak ustekabeen galtzea, suntsitzea edo aldatzea.
- Baimendu gabeko pertsonen datuetarako irispidea izatea.
- Baimendutako pertsonen ez izatea datuetarako irispiderik.
- Era berean, datuak bildu ziren helbururako ez beste baterako tratatzeko arriskua dago; gure kasuan, hezkuntza- eta orientazio-helburuetarako soilik bildu ziren.

Ikastetxeak arriskuak ebaluatu beharko lituzke, prozeduren, ekipamendu teknikoaren eta kudeatutako datu kopuruaren arabera.

3.4 Segurtasun-uraketak eta gorabeherak salatu.

Zer hartzen da segurtasun-uraketatzat eta noiz jakinarazi beharko litzaioke kontrol-agintaritzari? Ikus ditzagun adibide batzuk:

- Ikasleen datuak dituen ordenagailu eramangarri bat lapurtu dute.
- Intranetaren aurkako eraso informatiko baten ondorioz, ikasleen datuak aldatu direla antzeman da.
- Tratamendu-eragile bat (adibidez, eskola-jantokiko catering-enpresa) alergiak, elikadura-intolerantziak eta abar dituzten ikasleen datuekin komertzializatzen ari dela ikusi da.
- Akats informatiko baten ondorioz, ezinezkoa da matrikulazioa egitean bildutako datuak berreskuratzea.

Horrelako gorabeherak datuen babeserako ordezkariari eta informatika-zerbitzuei jakinarazi beharko zaizkie. Eta, larria dela-eta hala badagokio, baita kontrol-agintaritzari ere¹.

¹ Datuak Babesteko Euskal Bulegoari edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziari



4

Ikastetxeek datuak
tratatzea



Ikasleen datu pertsonalek «bizi-ziklo» jakin bat dute, eta, gure kasuan, ikasleek ikastetxearekin duten harreman akademikoak irauten duen denbora hartzen du, hau da, ikastetxean hasten direnetik hura uzten duten arte.

Horiek horrela, ikasturtearen hasieran datuak sartzen dira (datu-bilketa): matrikulazioa, argazkiak, eskolaz kanpoko jardueretako nahiz jantokiko izen-emateak eta abar.

Ikasturtean zehar, datu horiek zenbait modutan prozesatzen dira (tratamendua): ikastaldean eta ikasgaien araberako zerrendak egiten dira, ebaluatzeko eta kalifikatzeko erabiltzen dira, eta argitaratu eta partekatu egiten dira.

Ikasturte amaieran, datu horietako batzuk artxibatu eta zaindu egiten dira, eta beste batzuk lekuz aldatu edo ezereztu.

4.1 Datu-bilketa

a) Hezkuntza-komunitatean datuak biltzeko oinarrizko bi printzipio

- 1 HELBURUA:** hezkuntza-eremuan datu pertsonalak biltzearen helburu bakarrak irakastea eta orientatzea dira. Horrek esan nahi du ikastetxeak ezin dituela ikasleen datuak erabili, adibidez, kausa ideologiko edo erlijioso bat babesteko, ezta enpresa edo ekimen komertzial bat bultzatzeko ere.
- 2 PROPORZIONALTASUNA:** irakasteko eta orientatzeko helburuak bete daitezten arrazoizkoak diren datuak baino ez ditugu bildu behar. Ez da komeni, adibidez, iritzari, osasunari edo sexu-orientazioari buruzko datuak eskatzea, hezkuntza-funtzioari begira garrantzirik ez badute.

b) Bildu al daiteke gurasoen familia-egoerari buruzko daturik?

Ikaslearen gurasoak bananduta edo dibortziatuta baldin badaude, ikastetxeak jakin behar du nork duen guraso-ahala, zaintza eta jagoletza, eta nork duen ikaslearen bila joateko baimena.

c) Bildu al daiteke osasunari buruzko daturik?

Lehen esan bezala, bakar-bakarrik hezkuntza-funtziora betetzeko beharrezkoak baldin badira. Esate baterako, ezinbestekoa da irakasle-taldeak dislexia-diagnostiko baten berri edo ikaskuntzari eragiten dion beste edozein nahasmenduren berri izatea.

d) Bildu al daiteke ikasleen irudirik espediente akademikorako?

Argazkiak erants daitezke, ikasle bakoitza bere espedientearekin identifikatzeko.

e) Bildu al daiteke daturik hezkuntza-funtzioaz bestelako helburuetarako?

Bai, baldin eta adostasun espresua eskatzen eta lortzen bada. Adibidez: kirol-, aisia- edo kultura-zerbitzuak, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskaintza akademiko osagarria eskaintzeko.

4.2 Datuen tratamendua

Hezkuntza-eremuan datuak tratatzeko lau arau orokor

- 1 ADINGABEAREN INTERESA:** ikastetxeko langileek arduraz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz, eta ikasleen interesa eta babesa lehenetsi behar dituzte.
- 2 SEKRETUA:** datu pertsonaletarako irispidea duten pertsona guztiak behartuta daude datu horien gaineko sekretua gordetzera, baita tratamenduaren arduradunarekiko edo tratamendu-eragilearekiko harremana amaitutakoan ere. Adibidez, irakasle batek bere ikasleen datu pertsonalen sekretua gorde behar du, ikastetxe horretan lan egiteari utzi ondoren ere.
- 3 PRESTAKUNTZA:** ikastetxeak ahalegindu behar du hezkuntza-komunitate osoari datu pertsonalen tratamenduaren oinarriko printzipioei eta arriskuei buruzko prestakuntza ematen.
- 4 GARDENTASUNA:** ikastetxeek datuak babesteko politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri eman behar diete datuen titularrei, hizkera ulergarrian.

Tratatu al daitezke ikasleen datu pertsonalak? Datu pertsonalak helburu jakin bat betetzeko tratatu behar dira beti. Esate baterako:

Hezkuntza-helburuetarako: irakaskuntza- eta hezkuntza-funtzioetarako behar-beharrezkoa den informazioa soilik biltzen da. **Ez da adostasunik behar.** Baina informatzeko betebeharra bete behar da.

Adibideak:

- Jaiotze-data beharrezkoa da zer ikasturtetan eskolatu behar den jakiteko.
- Ikasle bati proba psikotekniko bat egiteko.

Hezkuntza helbururik gabe: hezkuntza-funtzioa betetzeko beharrezkoak ez diren datuak biltzen dira. **Adostasuna behar da.** 14 urtetik aurrera, adingabeak berak eman behar du adostasuna.

Adibideak:

- Ikasleek bisitatu duten museoari ikasleen datu pertsonalak jakinaraztea.
- Antzerki-emanaldi batean argazkiak ateratzea, ikastetxearen web-orrian jartzeko.

Adostasuna izan arren, ez da komeni adingabeei argazkiak ateratzea ikastetxeen web-orrian eta sare sozialetan jartzeko. Komeni da bizkarra emanda edo aurpegiak pixelatuta agertzea, ezagutzeko modukoak ez izateko.

Banantze- eta dibortzio-kasuetan:

Guraso biek eutsiko diote ikastetxeak seme-alabari buruzko informazioa emateko eskubideari, nahiz eta bananduta edo dibortziatuta egon eta zaintza eta jagoletza haietako baten esku bakarrik egon. Hori ez da aplikatuko baldin eta gurasoetako bati edo biei guraso-ahala kendu bazaie.

Adibidez:

- Guraso-ahalari eusten dioten bitartean, guraso biek izango dute eskola-orientazioko taldeei seme-alaben osasunari buruzko informazioa eskatzeko aukera.
- Guraso-ahalari eusten dioten bitartean, guraso biek izango dute seme-alabei buruzko informazio akademikoa eskatzeko aukera.

Guraso biek baimendu behar dituzte seme-alaben eskola-bizitzari buruz hartzen diren erabakiak (matrikulazioa, eskolaz kanpoko jarduerak, bidaiak eta abar). Horrelako kontuak ikastetxeak berak kudeatu behar ditu.

Adibidez:

- Ikastetxeak museo batera egindako txango bateko argazkiak igo nahi ditu bere web-orrira. Amak adostasun-agiria sinatzen du, baina aitak ez. Kasu horretan, ikastetxeak ezin izango ditu ikasle horren irudiak igo.

Datu pertsonalak biltzen edo lortzen direnean, nahiz eta interesdunaren adostasuna beharrezkoa ez izan, ikastetxeak honako informazio hau eman behar du:

- Datu pertsonalen tratamendurik izan ote den.
- Datuak zertarako biltzen diren, adibidez, hezkuntza- eta orientazio-funtzioak betetzeko, edo ikastetxeko jarduerak zabaltzeko eta ezagutarazteko, eta datu-bilketa zilegia den.
- Datuak nahitaez eman behar diren edo ez, eta zer ondorio dakartzan ez emateak.
- Nor diren datuen hartzaileak.
- Zein diren interesdunen eskubideak, eta non balia ditzaketen.
- Nor den tratamenduaren arduraduna: ikastetxea edo hezkuntza-administrazioa.

Informazioa eman behar da, besteak beste, ikasleak ikastetxeetan onartzeko inprimakiak betetzean, edo matrikulazioa egitean, edo ikastetxearen web-orriaren bidez.

4.3 Argitaratu al dezake ikastetxeak datu pertsonalik zerrenden bidez?

a) Esate baterako, ezin du honelakorik egin:

- Ikasleen oinarizko datuak dituzten onarpen-zerrendak web-orrian argitaratu era irekian.
- Kategoria berezietako datuak dituzten zerrendak argitaratu (adibidez, eskola-jantokian edo intranetean ezin da argitaratu haien erlijioa edo osasun-egoera dela-eta dieta jakin bat duten ikasleen zerrenda).
- Kalifikazioak eta emaitzak argitaratu.

b) Baina honako hau egin dezake, adibidez:

- Ikastaldeen zerrendak jarri bere intranetean, antolaketa-helburuetarako, oinarizko informazioa bilduz, baldin eta maila bakoitzeko ikasleek bakarrik badute horietarako irispidea.

4.4 Ikastetxeak daturik komunikatu al dezake adostasunik gabe?

Eskatutako informazioa edukitzea babesten duen legezko oinarri bat behar da horretarako.

Kasu hauetan, konparazio batera, adostasuna behar du datuak komunikatu ahal izateko:

- Antzerki batera egindako eskola-bisita batean parte hartu duten ikasleen izenen eta adinen zerrenda ematea, beharrezkoa bada.
- Eskolaz kanpoko jarduerak eskaintzeko, ikastetxera jotzen duten enpresei ikasleen harremanetarako informazioa ematea.
- Maila jakin bateko ordezkariari telefono pertsonala ematea, whatsapp talde bat sor dezan.
- Telefono bidezko informazioa ematea, solaskideak bere nortasuna egiaztatzen ez badu.
- Gainerako senideei informazioa ematea...



4.5 Irakasleek beren ikasleen datu pertsonal guztietarako irispidea izan al ditzakete?

Irakasleek ez dute ikasle guztien datu pertsonaletarako irispiderik izan behar. Irakasle bakoitzak bakar-bakarrik bere ikasleei buruzko informaziorako irispidea izango du, eta hezkuntza-lanerako beharrezkoa dena soilik.

4.6 Zer gertatzen da ikasleen datu pertsonalekin ikastetxez aldatuz gero?

Araudiak aurreikusten du jatorrizko ikastetxeak ikaslearen datuak jakinarazi ahal izango dizkiola ikastetxe berriari.

4.7 Datuen babesaren arloko eskubideak baliatzea.

Interesdunek tratamenduaren arduradunaren aurrean balia ditzakete eskubide hauek: datuetarako irispidea izatea, datuak zuzentzea, tratamenduaren aurka egitea, datuak ezereztea («ahaztua izateko eskubidea»), tratamendua mugatzea, datuak transferitzea eta ez izatea banan-banako erabakien xede.

Hona hemen eskubide horien ezaugarriak:

- Doakoa da eskubideok baliatzea.
- Eskubideak zuzenean edo legezko edo borondatezko ordezkari baten bidez balia daitezke, eta interesdunaren nortasuna eta, hala badagokio, baita ordezkariarena ere, egiaztatu behar dira.
- 14 urteik beherakoen kasuan, guraso-ahalaren titularrek eskatuko dute.
- Eskaerei hilabete epean erantzun behar zaie. Epe hori beste bi hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta beharrezkoa bada eskaeren konplexutasuna eta kopurua direla-eta.
- Eskaerak argi eta garbi funsgabeak edo gehiegizkoak badira (errepikakorrek, esaterako), tratamenduaren arduradunak kanon bat kobratu ahal izango du, zeina jasandako administrazio-kostuekiko proportzionala izango baita, edo eskaerari uko egin ahal izango dio.

Ikastetxe publikoen kasuan, datuen babesaren arloko eskubideak honako webgune honen bidez balia daitezke: <https://www.euskadi.eus/servicios/10842/>

Ikastetxe pribatuen kasuan, interesdunak ikastetxearekin harremanetan jarri beharko du, eskubideak nola baliatu jakinaraz diezaion.

5

Guraso-elkarteek datuak tratatzea



5.1 Ikastetxeek ikasleen informazio pertsonala eman al diezaiekete guraso-elkarteei?

Bai:

- Ikasleen eta haien familien harremanetarako datuak eman ahal izango dizkiete, guraso-elkarteko kideak baldin badira. Nolanahi ere, tratamenduaren berri eman beharko diete.
- Guraso-elkartek ikastetxeari zerbitzu bat ematen baldin badio eta zerbitzu horri dagozkion datuak tratatu behar badira (guraso-elkartea izango litzateke tratamendu-eragilea); konparazio batera, guraso-elkartek ikastetxearen konturako jantoki-zerbitzuaren edo eskola-garraioko zerbitzuaren ardura hartzen baldin badu.

Ez:

- Ezin izango dizkiete ikasleen eta haien familien harremanetarako datuak eman, ez baldin badira guraso-elkarteko kideak. Gurasoen edo legezko tutoreen baimena eskatu beharko da ikaslea 14 urtetik beherakoa bada, edo ikaslearena berarena adin horretatik gorakoa bada.
- Ezin izango diete ikasle guztien urtebetetze-egunen berri eman ospakizunak antola ditzaten.



6

Irudiak hartzea eta argitaratzea



Ikastetxeak protokolo batzuk izan behar ditu, eta irakasle guztiek horiek ezagutu eta aplikatu beharko dituzte. Ikastetxeari dagokio irudiak hartzeari, grabazioak egiteari eta horiek zaintzeari buruzko erabakiak hartzea, eta ez irakasleari.

6.1 Irakasleak ezin ditu irudiak edo grabazioak bere helburuetarako erabili.

- Ikastetxearen web-orrian ikasleen irudiak zabaltzeak ez du hezkuntza-helbururik; beraz, horretarako, adingabearen adostasuna beharko litzateke, 14 urtetik gorakoa bada, edo haren legezko ordezkariarena, 14 urtetik beherakoa bada.

6.2 Ez da erabili behar adingabea ezagutzeko moduko irudirik.

Eta irudiak gurasoek grabatzen baldin badituzte ekitaldi berezi batean?

- Ikastetxeak debekatu egin dezake, baina normalean ez du horrelakorik egiten. Hala ere, debekatu ezean, gurasoei ohartarazi behar die grabazio edo irudi horiek ezin direla zabaltzea, eta norberaren lagunarteko erabilerara mugatu behar direla.

Sare sozialen bateko profilean partekatu nahi badituzte, gainerako gurasoen adostasuna beharko dute, beste adingabe batzuei ere eragiten dielako. Nolanahi ere, baloratu beharko da zabaltzea komeni ote den.

Komeni da ikastetxeak ekitaldietako parte-hartzaileei ohartaraztea ikasleen irudiak grabatu daitezkeela, baina soil-soilik bakarka, familian eta lagunartean erabiltzeko. Mota horretako grabazioak ez dira Interneten era irekian argitaratu behar, baldin eta irudietan ageri diren guztien adostasunik ez badago, edo haien gurasoena edo tutoreena (14 urtetik beherakoak badira).

6.3 Irakasleek irudiak hartzea. Maiz egiten diren galderak.

a) Grabatu al ditzaket nire ikasleak ebaluatu beharreko irakaskuntza-lan baten parte gisa?

Aldez aurretik, ikastetxeko zuzendaritzarekin kontsultatu behar dut, hark erabaki dezan grabazioak hezkuntza-helburua duen, nagusiki, eta hura lortzeko aukera ematen digun (adibidez, antzerkiko edo arte plastikoetako eskoletan ahozko adierazpena ebaluatzea).

Aitzitik, ez bada egiaztatzen proposatutako grabazioak «hezkuntza-helburua» duela, edo grabazioaren bidez helburu hori betetzea zalantzazkoa bada, adostasuna eskatu beharko da, datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeriak ezartzen duen informazioa eman ondoren.

b) Erabil al dezaket nire smartphonea?

Irakasleak ez du bere smartphonea erabili behar irudiak hartzeko edo grabazioak egiteko. Halaber, ezin ditu irudiak edo grabazioak bere helburuetarako erabili. Segurtasun-arrazoiak direla-eta, ikastetxeak gailu bat eman beharko lioke irakasleari grabazioa egiteko, eta espresuki adierazi beharko lioke zenbat denbora igaro ondoren suntsitu behar duen (kontserbazio-epea), irakaskuntza-jarduerak kalifikatzeko eta berrikusteko epeekin bat etorritz.

c) Badago irakaskuntza-lana publikoki «zabaltze»rik «hezkuntza-helburu»en babespean?

Ez, eta irakaskuntza-lana argitaratzeko adostasuna emateak edo ez emateak ezin du baldintzatu ikasleak irakasgaia gainditzea.

d) Ikastetxearen web-orriaren bidez zabaldu al daiteke?

Ez da komeni adingabeen irudiak publikoki zabaltzea; nolana ere, argitaratu ahal izango dira, baldin eta aurretik pertsona bakoitza pixelatu edo distortsionatzen baldin bada, identifikatu ezin izateko moduan.

e) Eta argitaratzen baldin badira?

Baliteke ikastetxea zigortzea, edo irakaslea, irudiak bere sare sozialetan argitaratzen baditu.

6.4 Ikasleek ikasgela irudiak hartzea. Maiz egiten diren galderak.

a) Ikasleek smartphoena erabil al dezakete ikasgela?

Ikastetxe bakoitzaren barne-araudiak zer dioen, huraxe bete beharko da.

b) Ikasleek irakaslea grabatu al dezakete?

Irakaslearen adostasuna eskatu behar da horretarako.

c) Eta ikasleek ikasgela egindako grabazio bat Instagramera edo antzeko beste sare sozial batera igo al dezakete?

Adostasunik gabe, ez. Adostasuna izanda ere, ez da komeni. Gainera, sare sozialetako asko erabiltzeko, 14 urtetik gorakoa izan behar da.

Eta igotzen badute?

Kasuan-kasuan dagokion datuak babesteko agentzian salatu daiteke.

d) Zer egin behar du ikastetxeak?

Esku hartu behar du. Telefono mugikorra helburu desegokiarekin erabiltzeagatik diziplina-zehapenak ezartzeko eskumena du ikastetxeko zuzendaritzak.


6.5 Ziberjazarpenaren susmoa izanez gero, irakasleak smartphoenearen edukirako irispidea izan al dezake baimenik gabe?

Oro har, irakasleak ikasle bati mugikorra konfiskatzen dionean, ikasleak itzalita entregatuko dio gailua. Salbuespen gisa, interes publikoa tartean egon daitekeen egoeretan, hala nola ikasle baten osotasuna arriskuan jartzen ari denean (ziberjazarpeneko, sextingeko, groomingeko edo genero-indarkeriako egoerak), ikastetxeak, kasua aztertu ondoren eta ezarrita duen protokoloari jarraituz, eduki horiek eskuratu ahal izango ditu interesdunen adostasunik gabe.

Irakasleek esku hartuko ez balute eta gertatzen ari dena ikastetxeari jakinaraziko ez baliote, horren erantzule izango lirateke.

7

Datuen tratamendua IKT inguruneetan



7.1 Ikastetxeak ezarrita duen protokoloaren arabera jardun beharko da.

- Printzipioz, Hezkuntza Sailak emandako plataformak erabili behar dira. Horiek nahikoak ez badira, gutxienez Ikasgune plataforma erabili beharko da ikasleen datu pertsonalak kudeatzeko. Ez dago datuak babesteko agentziek babestutako zerrendarik. Argi dago, ordea, ez dela doako plataformarik erabili behar.
- **Orduan, utzi egin behar al dioz Googleren tresnak erabiltzeari?**
Kasuaren arabera. Sinatutako kontratuak banakakoak dira, ikastetxe bakoitzarenak (Classroom, Meet...). Atxikitze-kontratuak dira. Ikastetxe bakoitzak autonomia du esparru horretan, eta, beraz, horri buruz ezarri den protokoloa kontsultatu behar da.

7.2 Gurasoekiko eta ikasleekiko komunikazioa.

a) Nola jar naiteke harremanetan ikasleekin edo gurasoekin?

- Ikastetxean ikasleekiko eta gurasoekiko interakzioa ahalbidetzen duen hezkuntza-plataforma bat dagoenean, komunikabide horren bidez jarri behar da harremanetan, komunikabide gehigarriak ezarri gabe.

b) Sare sozialak nire ikasleekin komunikatzeko bitarteko egokiak al dira?

- Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazioak hezkuntza-funtzioaren eremuaren barruan egin behar dira, ikastetxeak ezartzen dituen bitartekoen eta tresnen bidez.

c) Eta whatsapp talde bat sortzen badut?

- Irakasleen eta ikasleen gurasoen arteko komunikazioak ikastetxeak bien eskura jarritako bitartekoen bidez egin behar dira. Salbuespen gisa, eta betiere gurasoen adostasuna izanez gero, gai zehatz bati buruz aritzeko talde bat sor liteke, eta adostasuna agertu duten gurasoek soilik parte hartuko lukete taldean. Nolanahi ere, taldea gurasoek kudeatu behar dute, inola ere ez irakasleak.

d) Berariazko neurriren bat hartu behar al dut nire ikasle guztiei jarraibideak posta elektronikoko kolektibo baten bidez helarazteko?

- Hezkuntza-plataforma erabili beharko litzateke, ez helbide elektronikoko pertsonalak. Salbuespen gisa horrela egiten ez bada, berariazko neurriak hartu beharko lirateke. Adibidez, datu pertsonalak (ikasle baten helbide elektronikoko pertsonala, esaterako) hirugarrenei ez zabaltzea, beste ikasle batzuei barne. Horretarako, mezu elektronikoa edo posta-zerrendaren «Bcc» aukera erabil daiteke.

7.3 Ikastetxeak sare sozialak erabiltzeak datu pertsonalak tratatzea al dakar?

- Bai.

7.4 Beharrezkoa al da ikasle bakoitzaren edo gurasoen adostasuna datuak sare sozial batean argitaratzeko?

- Bai. Legeak espresuki ezartzen du adingabearen adostasuna behar dela, 14 urtetik gorakoa bada, edo haren legezko ordezkariena, 14 urtetik beherakoa bada, mota horretako zerbitzuetan edo baliokideetan haien datu pertsonalak argitaratu edo zabaltzeko.

a) Ikaslearen edo gurasoen adostasuna nahikoa al da haren datuak edo irudia sare sozial batean argitaratzeko?

- Ez da beti nahikoa izaten. Argitalpenak ikaslearen ohoreari edo ospeari kalte egiten badiu, edo ikaslearen interesen aurkakoa bada, ezin izango da argitaratu. Datu pertsonalak sare sozialetan argitaratzean edo zabaltzean, baztertu egin behar dira kaltetuaren segurtasuna arriskuan jar dezaketenak (helbidea, pasahitzak, bankuko datuak eta abar), bai eta osasunari, erlijioari eta sinesmenei buruzko datuak ere, besteak beste.

b) Zer egin behar dute ikastetxeek liburu digitalak era zentralizatuan eskuratzeko zerbitzua ematen badute?

- Liburuak eskuratu ahal izateko ikasleen zerrenda —datu pertsonalduna— bidali behar bada argitaletxeetara, datuen komunikazio horren berri eman


beharko da, eta ikasleei edo guraso edo tutoreei jakinarazteak zer helburu duen ere adierazi beharko da.

Orduan, argitaletxeak nirekin harremanetan jarri ahal izango dira?

Ez. Argitaletxeek ez dute legitimaziorik datu pertsonalak zerbitzuaren lizentzian aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzeko (proben emaitzak, profilak, publizitatea eta abar); beraz, horretarako, berariazko adostasuna eskatu beharko dute.


C) Ikastetxeek baimena eman al dezakete hezkuntza-plataformez bestelako hodeiko biltegiatze-tresnak erabiltzeko?

- Bakar-bakarrik datuak babesteko araudian aurreikusitako bermeak betetzen dituzten tresnak erabiltzeko baimena eman dezakete. Kasu horretan, datu pertsonalen tratamendu egokia bermatuko duten arauak ezarri beharko dituzte. Tresna horiek erabiltzeak ez du esan nahi ikastetxeak datuak eskuratzeari edo ezabatzeari uko egiten dionik.



8

Bideozaintza



8.1 Badago ikastetxeko instalazio guztietan bideozaintzako kamerak instalatzerik?

a) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren irizpideei jarraituz, ez. Ezin izango dira instalatu, besteak beste, honako kasu hauetan:

Ezin izango dira instalatu irakasleen edo beste langile batzuen komunitan, aldageletan edo atsedenguneetan, intimitatea urratzea dakar-eta.

Ezin da bideozaintzako kamerarik instalatu ikasgeletan, argudiatuz eskola-ordutegian gatazkak egon daitezkeela. Neurritz kanpoko litzateke, eskolak eman bitartean irakasle bat egoten delako ikasgelan. Ikasleen pribatutasuna urratzeaz gain, irakasleen lanaren gaineko neurritz kanpoko kontrola ekar lezake.

b) Aitzitik, kamerak instalatzeko aukera egongo da honako kasu hauetan, besteak beste:

Jolastokietan eta jantokietan bideozaintzako kamerak instalatu daitezke adingabearen interes gorena babesteko jartzen baldin badira; izan ere, beste jarduketa batzuk alde batera utzi behar ez badira ere, hala nola helduen zuzeneko kontrol presentziala, baliteke mota horretako espazioetan adingabeen osotasun fisikoa, psikologikoa eta emozionala arriskuan jar dezaketen ekintzak egitea.

c) Bideozaintzako sistema bat dagoela jakinarazi behar al da?

Bai, bereizgarri bat jarritz kamerak instalatu diren espazioetan, ondo ikusteko moduko leku batean.

Halaber, informazio-klausula bat eduki beharko da, araudian jasotako alderdien berri emateko.

Hezkuntza Sailak egindako ikastetxeetarako kartelaren ereduaren irudiak eskuratu daitezke: <https://www.euskadi.eus/videovigilancia>

9

Datuen babesaren arloko hezkuntza-curriculuma: oinarrizko terminologia




9.1 Hezkuntza-curriculuma

Ikasleen alderdi hauek bermatu behar dira:

- Ikasleak gizarte digitalean erabat txertatzea.
- Ikasleek ikasi behar dute baliabide digitalak modu arduratsuan kontsumitzen eta era kritiko eta seguruan erabiltzen, giza duintasuna, justizia soziala, ingurumen-iraunkortasuna, oinarrizko eskubideak errespetatuz, eta, batik bat, norberaren eta familiaren intimitatea eta datu pertsonalen babesaren errespetatuz eta bermatuz.

9.2 Hezkuntza-administrazioaren betebeharrak:

- 1 Curriculuma garatzean, honako hauek aintzat hartzea:
 - Gaitasun digitala.
 - IKTen erabilera desegokiaren ondoriozko arrisku-egoerekin lotutako elementuak, arreta berezia jarritz sareko indarkeria-egoeretan.
- 2 Ikasle bakoitzari identifikazio-zenbaki bat ematea.
- 3 Bermatzea ikaskuntza-ingurune birtualek aukera ematen dietela ikasleei beren ikastetxeen ikaskuntza-inguruneetara sartzeko, edozein lekutatik eta edozein unetan, erabat errespetatuz jabetza intelektualaren, pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloetan aplikatzekoa den araudian xedatutakoa.
- 4 Irigarritasun unibertsalaren eta pertsona guzientzako diseinuaren printzipioak sustatzea.



Informazio osagarri interesgarria:

Informazio osagarria:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/datuak-babesteko-ordezkarria/hasiera/>

Datu babesaren gaineko eskubideak egikaritu:

<https://www.euskadi.eus/datu-babesaren-gaineko-eskubideak-egikaritu/web01-a2datuba/eu/>

